




Oihanen kokagunea




Ipar Euskal Herriko oihanak



Euskal Herriko erliebea eta klima



Mapa honek Euskal Herriko erliebea eta oihanaldeen kokaguneak irudikatzen ditu.



Klimak eragin handia du inguruneke landaredian. Oihan guti da Nafarroa hegoaldean klima mediterranearra delako. Ikus *Euskal Herriko hariztiak 5. moduluan.*

Pirinioetako oihanaren historia



© Ikas

XVII. menderaino, lekuko jendeak baizik ez zuen gure mendietako oihana baliatzen. Geroztik Pirinioetako oihana azkar ustiatu da.

Luis XIV.aren erreinu hasieran, Colbert-ek erabaki zuen Pirinioetako oihanen baliatzea gerla-ontzien masten egiteko. Horretarako kableak behar izan ziren hedatu, lerratokiak egin, oihanbideak ideki, portuak antolatu eta hori guztia zuren eta egurraren garraiatzeko. Aspe ibarreko "Chemin de la mâture" edo masta bidea hor dugu lekuko : kilometro bat luzeko arteka bat zulatua izan zen harkaitzean haitzarte harrigarri batean garraioen pasarazteko. Martxotik uztaila arte, 30 m luze zituzten almadiak multzoka bazeramatzaten Nabarrenkose artino. Nabarrenkositik, beste almadia batzuk Baionara zoazen. Baionatik zurak itsasoz heltzen ziren Rochefort edo Touloneraino.

Geroago, XIX. mendearen hasieran, zuhaitz anitz behar zen; burdinoletan baliatzen zen egur ikatzaren egiteko. Erran behar da burdinola anitz bazela Pirinioetako mendi kate guzian. Hori dela eta, oihanalde osoak betirako desagertu ziren, bereziki leku hurbil errazenetan. Geroztik berroihañeztatzeak beharrezkoak izan ziren.


Piriniar oihanaren berroihañeztatzearen lehen plangintza Luis XIV. erreinuaren garaian egin zen.

Piriniar oihana sekula ez da hain handia izan Erdi Aroaz geroztik. Pirinoen iparraldetik 450 000 ha badira eta hegaldetik 600000 ha. Alhaguneak abandonatuak diren gunetean, oihana berriz nagusitzen ari da.

Gaur egun, piriniar oihanetako egur ekoizpena 600000 tonakoa da. Erdia baino gehiago paper orearen egiteko baliatzen da. Gelditzen denetik parte bat Pirinioetako iparraldean dauden 80 bat segerietara banatua da, beste parte bat Espainiara esportatua delarik.

Euskal Herriko Pirinioetako bi mazeletan hegoaldera eta iparraldera hedatzen den Iratiko oihanak 17000 ha baditu. Iratiko oihana Europako pago-oihan handiena da. Hurbil nekea izanik, ustiapen intentsiborik ez du jasan eta horri esker basakatu, azkon, azeri, basurde, orkatz eta oreinak aurki ditzakegu baso handi eta eder horretan. Hartzak kopuru handian zeuden baina gaur egun desagertuak dira. Hor da, bestalde, Europako okilo-bizkar-xuriaren azken babeslekua.

Frantziako oihanak



Oihanak Frantziako luraren %25 baino gehiago estaltzen du 15 milioi hektareatan. Europako erresumetarik oihantsuena da. Oihanalde handienak ekialdean daude. Iparraldean eta ipar mendebaldean oihan gutiago da klimarengatik eta beste arrazoi historiko batzuegatik.

Oihan mota desberdinak aurki ditzakegu Frantziako oihanetan. Oihan epela arras hedatua da, bai eta mendi oihana eta oihan mediterraniarra. Oihan hostodunek oihan azalaren bi herenak hartzen dituzte eta oihan orrazdunek aldiz beste herena.